HONDAKIN BERDEAREN BIRRINTZE-ZIPIZTE ZERBITZUA ETA GARRAIOA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

ESP. 2021_01

GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

AURKIBIDEA:

1.- HELBURUA……2

2.- BEHARREZKO ZERBITZUAK……2

3.- GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MEKANIKOAK……..9

4.- BIRRINDUKO DEN INAUSKETA NON KOKATUKO DEN ETA BIRRINDUTAKO-ZIPIZTUTAKO LANDARE-HONDAKINA NORA GARRAIATUKO DEN……10

5.- NAHITAEZKO ESKAKIZUN TEKNIKOAK……11

6.- AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIO TEKNIKOA……..12

7.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA……13

8.- KONTROL SISTEMAK……14

HONDAKIN BERDEAREN BIRRINTZE-ZIPIZTE ZERBITZUA ETA GARRAIOA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- HELBURUA

Baldintza agiri honen helburua GHKk eskatutako zerbitzuak deskribatzea da; hain zuzen ere, lorezaintzako hondakin berdea (inausketa eta belarra) birrintzeko eta garraiatzeko zerbitzuak.

2.- BEHARREZKO ZERBITZUAK

HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA

Gipuzkoako Mankomunitateetatik jasotako lorezaintzako hondakin berdea birrindu-zipiztuko da, esaterako, belarra, sasiak, inausketa, gehienez 25 cm-ko diametroa dutenak. Horretarako, lortzen den birrindutako-zipiztutako materialak 60 eta 150 mm arteko neurriak izateko egokiak diren birrintzeko baliabideak erabiliko dira.

BIRRINDUTAKO HONDAKIN BERDEAREN GARRAIOA

Lizitatzaileak hondakin berdea birrintzeko-zipizteko beharrezko baliabide mekaniko guztiak jarraian deskribatutako lekuetara garraiatu beharko ditu; eta behin hondakin berdea birrinduta dagoenean, berak zamatu eta garraiatu beharko du GHKko teknikariek deskribatutako lekura. Zipiztutako hondakin berdearen garraioa optimizatuko da uneoro, eta horretarako errepide-trena edo erdi-atoiak erabiliko dira.

Aurreikusi behar da BIRRINDU GABEko inausketaren karga eta garraioa egitea beharrezkoa izan daitekeela; eta horretarako prezioa eskaini beharko da (baldintza administratibo berezien agiriko D eta E prezioa).

Hondakin berdea birrintzen joan ahala, hori garraiatzen joango da. Birrindutako lote bakoitzak erabat garraiatua egon behar du, birrintzen denetik hasita gehienez ere 3 egun balioduneko epean. Ezin da inolaz ere birrindutako inausketa biltegiratu 3 egun horietatik haratago.

2.A.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA SAN MARKO MANKOMUNITATETIK

San Markoko Zabor Transferentzia Gune zaharrean badago eskualdeko inausketak pilatzeko prestatutako eremua. 500 m^2 inguruko azalera du, hormigoiztatua dago eta 3 metroko altuerako muruak ditu ertzetan.

Zerbitzua izango da esleipendunak birrindutako hondakin berdea birrintzea eta garraiatzea San Marko Mankomunitatetik Epeleko (Bergara) konpostatze plantaraino edo GHKko teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze lanak eta garraioa GHKko teknikariek eskatzen dutenaren araberako maiztasunez egingo dira. Eskaera inausketa metatzeko instalazioen betetze mailaren arabera izango da. Aurreikusten da gutxienez hilabete eta erdiro birrintzera joan beharko dela.

Gutxi gorabehera urtean 1.570 tona izango direla kalkulatzen da. Kopuru hori gutxi gorabeherakoa da eta GHKk soilik bere jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatuko ditu.

Birrindu beharreko gutxieneko zenbatekoa gutxi gorabehera 100 tonakoa izango da txikizio bakoitzeko.

2.B.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA SASIETAKO MANKOMUNITATEAN

Sasietako zabortegiaren lurretan badago 500 m^2 inguruko eremu bat, erdi-zolatua, Sasieta mankomunitateko inausketa-materialak pilatzeko.

Pilatzeko gune horretara iristen dira, gaur egun, Tolosaldea mankomunitateko garbiguneetan birrindu gabeko inausketak ere.

Zerbitzua izango da esleipendunak birrindutako hondakin berdea birrintzea eta garraiatzea Sasieta mankomunitatetik Epeleko (Bergara) konpostatze plantaraino edo GHKko teknikariek adierazten duten lekuraino.
Birrintze lanak eta garraioa GHKko teknikariek eskatzen dutenaren araberako maiztasunez egingo dira. Eskaera inausketa metatzeko instalazioen betetze mailaren arabera izango da. Gutxi gorabehera urtean 1.200 tona izango direla kalkulatzen da. Kopuru hori gutxi gorabeherakoa da eta GHKk soilik bere jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak kontratatuko ditu. Aurreikusten da gutxienez 3 hilabetean behin birrintzera joan beharko dela.
Birrindu beharreko gutxieneko zenbatekoa gutxi gorabehera 100 tonakoa izango da txikizio bakoitzeko.

2.C.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA UROLA ERDIAN (LAPATX)

Lapatxeko zabortegiaren barrutian bertan, badago hormigonaturiko eremu bat.

Zerbitzua izango da hondakin berdea, inausketa eta belarra, Lapatxeko konpostatze plantaren instalazioetan birrintzea eta Epeleko (Bergara) konpostatze plantaraino edo GHKko teknikariek adierazten duten lekuraino garraiatzea.

Birrintzearen maiztasuna GHKko teknikariek eskatutakoa izango da. Eskaera hori, Hondakin berdea metatzeko gunearen betetze-mailaren araberakoa izango da. Gutxi gorabehera urtean 600 tona birrinduko direla kalkulatzen da. Esan bezala, kopuru hori gutxi gorabeherakoa da, eta GHK soil-soilik beharrezkotzat jotzen duen kopurua kontratatzera behartuta egongo da. Aurreikusten da gutxienez bi edo hiru hilabetean behin birrintzera joan beharko dela.

Birrindu beharreko gutxieneko zenbatekoa gutxi gorabehera 100 tonakoa izango da txikizio bakoitzeko

2.D.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEAN

Akei transferentzia-gunean badago eskualdeko inausketak pilatzeko prestatutako eremua. 2.500 m^2 inguruko azalera du eta zorua asfaltatua dauka.

Aldi baterako bada ere, eremu honetan pilatzen da Txingudi mankomunitatetik garraiatzen den birrindu gabeko inausketa.

Zerbitzua izango da esleipendunak birrindutako hondakin berdea birrintzea eta garraiatzea Akeiko (Arrasate) instalaziotik Epeleko (Bergara) Konpostatze plantara edo GHKko teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze lanak eta garraioa GHKko teknikariek eskatzen dutenaren araberako maiztasunez egingo dira. Eskaera, Akeiko plantako inausketa metatzeko instalazioen betetze-mailaren araberakoa izango da. Kalkulatzen da gutxi gorabehera honako kopuruak birrinduko direla urtean: 1250 tona inguru Debagoiena mankomunitatetik etorriak, eta 2.700 tona inguru Txingudiko mankomunitatetik etorriak. Kopuru hori gutxi gorabeherakoa da eta GHKk bere jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak bakarrik kontratatuko ditu. Aurreikusten da gutxienez hilabetean behin birrintzera joan beharko dela.

Kontratuaren indarraldian zehar alda daitezke bai eremu honetan pilatzen den Txingudiko inausketa, eta baita pilatzeko eremu horrek Debagoienan duen kokalekua ere; hortaz, esleipendunak etorkizuneko aldaketetara egokitu beharko ditu bere zerbitzuak.

Birrindu beharreko gutxieneko zenbatekoa gutxi gorabehera 100 tonakoa izango da txikizio bakoitzeko.

2.E.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA URTETAKO HONDAKINDEGIAN (UROLA KOSTAKO MANKOMUNITATEA)

Eskualde honetako hondakin berdea Urtetako (Zarautz) Garbigunean biltzen da, beronen kontura prestatutako eremu batean. Eremu honek 250 m^2 inguruko azalera du, hormigoiztatua dago eta hormigoizko murruak ditu bueltan.

Zerbitzua izango da esleipendunak birrindutako hondakin berdea birrintzea eta garraiatzea Urtetako (Zarautz) hondakindegitik Epeleko (Bergara) Konpostatze plantara edo GHKko teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze lanak eta garraioa GHKko teknikariek eskatzen dutenaren araberako maiztasunez egingo dira. Eskaera inausketa metatzeko instalazioen betetze-mailaren arabera izango da. Gutxi gorabehera urtean 500 tona birrintzea aurreikusi da. Kopuru hori gutxi gorabeherakoa da eta GHKk bere jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak bakarrik kontratatuko ditu. Aurreikusten da gutxienez 4 hilabetean behin birrintzera joan beharko dela.

Birrindu beharreko gutxieneko zenbatekoa gutxi gorabehera 100 tonakoa izango da txikizio bakoitzeko.

2.F.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA TXINGUDIKO MANKOMUNITATEAN

Eskualde honetako hondakin berdea Arasoko (Irun) Garbigunean eta transferentzia-gunean biltzen da.

Zerbitzua izango da esleipendunak birrindutako hondakin berdea birrintzea eta garraiatzea Arasoko (Irun) transferentzia gunetik Epeleko (Bergara) konpostatze plantaraino GHKko teknikariek adierazten duten lekuraino.

Nolanahi ere, lekurik ez dagoenez, gaur egun ezinezkoa da birrintze-lanak Txingudiko pilatze-eremuan egitea; horregatik, inausketako materiala birrindu gabe garraiatzen da GHKko teknikariek

adierazten duten lekuraino (normalean Akeira, Arrasaten), eta hondakina han birrintzen da eskualde horretako gainerako inausketarekin batera.

Hori horrela, gaur gaurkoz Txingudin zerbitzu hau aurrera eraman ahal izateko, esleipendunak 30-40m³-ko gantxodun motako kaxak edo zoru mugikorreko remolqueak eduki beharko ditu inausketako material hori kargatzeko eta, gainera, hondakin hori birrindu gabe garraiatu beharra aurreikusi behar du. Birrindu gabeko inausketaren karga Txingudi Mankomunitateko zerbitzuek burutzen dute eta esleipendunak kaxa horien garraioa errepide-tren bidez egin beharko du ahal izanez gero, garraioaren zerbitzua optimizatzeko.

Garraio lanak GHKko teknikariek eskatzen dutenaren araberako maiztasunez egingo dira. Eskaera, inausketa metatzeko instalazioen betetze-mailaren arabera izango da. Urtean 2.700 tona inguru garraiatuko dira gutxi gorabehera; hau da, bi edo hiru bidaia (errepide-tren bidez, 2 kaxa bidaia bakoitzeko) astean. Hala ere, inausketa garaian bidaia bat egin beharko da egunero. Kopuru hori gutxi gorabeherakoa da eta GHKk bere jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak bakarrik kontratatuko ditu.

2.G.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA DEBABARRENEKO MANKOMUNITATEAN

Eibarren (Elgetarako errepidean) badago eskualdeko inausketak pilatzeko prestatutako eremua. 3.000 m^2 inguruko azalera du eta zorua asfaltatua dauka.

Zerbitzua izango da esleipendunak birrindutako hondakin berdea birrintzea eta garraiatzea Eibarko eremu horretatik Epeleko (Bergara) konpostatze plantaraino edo GHKko teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze lanak eta garraioa GHKko teknikariek eskatzen dutenaren araberako maiztasunez egingo dira. Eskaera, inausketa metatzeko instalazioen betetze-mailaren arabera izango da. Gutxi gorabehera urtean 300 tona birrintzea aurreikusi da. Kopuru hori gutxi gorabeherakoa da eta

GHKk bere jarduerarako beharrezkoak diren zerbitzuak bakarrik kontratatuko ditu. Aurreikusten da gutxienez 4 hilabetean behin birrintzera joan beharko dela.

Birrindu beharreko gutxieneko zenbatekoa gutxi gorabehera 100 tonakoa izango da txikizio bakoitzeko.

3.- GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO MEKANIKOAK

Lizitatzaileak inausketa birrintzeko eta hori garraiatzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta bitarteko mekaniko guztiak jarriko ditu; hau da, trakzio burua, birrintzaileak, kaxak, pala kargatzailea.
Garraioa errepide-trenez edo erdi-atoiak erabiliz egingo da.

Nahitaezko baldintza izango da garraio hori egiteko erabiliko diren edukiontzi edo atoiak erabat garbi egotea zerbitzu hori eskaintzen hasi baino lehen.

Fakturaziorako GHKk adierazitako baskuletan egindako pisaketak hartuko dira erreferentzia gisa. Inausketa birrintzen den eta baskulak dituzten instalazioetan, kamioi guztiak pisatuko dira bidali baino lehen.

Behin birrintze lanak hasita, birrindutako inausketa guztia erretiratuko da eta inausketa metatzeko gunea garbituko da. GHKk, birrindutako inausketaren zati bat instalazioan bertan metatzeko eskatu ahal izango dio kontratistari.

Birrintzeko eta garraiatzeko zerbitzua, GHKko zerbitzu teknikoetatik zerbitzua eskatzen dutenetik hasita 4 egun balioduneko epean egingo da, asko jota ere. Zerbitzuaren eskaera telefono nahiz e-mail bidez egin ahal izango da.

Enpresa esleipendunak erabakiak hartzeko ahalmena duen pertsona bat izendatuko du harremanetarako, eta hori izango da GHK SAUrekiko solaskidea, hornidura-prozesu osoan zehar gerta litekeen gorabehera oro konpontzeko.

4.- BIRRINDUKO DEN INAUSKETA NON KOKATUKO DEN ETA BIRRINDUTAKO-ZIPIZTUTAKO LANDARE-HONDAKINA NORA GARRAIATUKO DEN

Birrindutako inausketa Epeleko (Bergara) konpostatze plantan utziko da edo GHKko teknikariek adierazten duten lekuan.

Fakturaziorako taulan adierazitako kilometroak hartuko dira erreferentzia finko gisa.

		HELMUGA
		EPELEKO PLANTA (BERGARA)
JATORRIA	SAN MARKO (DONOSTIA)	74 Km
	SASIETA (BEASAIN)	25 Km
	UROLA ERDIA (LAPATX-AZPEITIA)	41 Km
	DEBAGOIENA (AKEI-ARRASATE)	5 Km
	UROLA KOSTA (URTETA-ZARAUTZ)	52 Km
	TXINGUDI (ARASO-IRUN)	85 Km
	DEBABARRENA (EIBAR)	16 Km

GHKk aldatu ahal izango ditu birrindu beharreko inausketaren kokapenak, eta birrindutako inausketa entregatzeko lekuak. Inausketa birrindu beharreko leku berri bat balego, edota hori beste leku batera garraiatu behar bada, GHKk zehaztuko du zerbitzua egin beharreko bi puntuen arteko distantzia.

Garraio gehienak Epele helmuga dutenak izango direla aurreikusten da. Hona, segidako taulan, birrindu beharreko eta helmuga bakoitzera garraiatzeko zenbatetsi diren kopuruak:

		KOPURUA
JATORRIA	**SAN MARKO (DONOSTIA)**	1.570 tona
	SASIETA (BEASAIN)	1.200 tona
	UROLA ERDIA (LAPATX-AZPEITIA)	600 tona
	DEBAGOIENA (AKEI-ARRASATE)	12500 tona
	UROLA KOSTA (URTETA-ZARAUTZ)	500 tona
	TXINGUDI (ARASO-IRUN)	2.700 tona
	DEBABARRENA (EIBAR)	300 tona
	GUZTIRA	**8.120 tona**

5.- NAHITAEZKO ESKAKIZUN TEKNIKOAK

Esleipendunak zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren baliabide material guztiak jarriko ditu. Zerbitzua gauzatzera bideratutako baliabide horiek uneoro ziurtatuko dute horien prestazioa, laneko plana zehatz-mehatz betetzeko eta sor litezkeen gorabeherak konpontzeko behar besteko marjinarekin, baldintza agiri honetan ezarritako gutxienezkoak betez, betiere.

Lizitatzaileek, beren eskaintzetan zerbitzu desberdinetan zein material mugikor erabiliko duten zehaztu beharko dute, eta argi eta garbi adierazi beharko dute zerbitzua behar bezala emateko beharrezko materiala zein den, baita erreserbako materiala zein den ere, hau da, gehienetan erabiltzen ez den arren, matxurarik badago edo laguntza gehiago behar bada, zerbitzuetakoa ordezkatzeko erabiliko dena.

Material mugikorrari dagokionez, zerbitzuaren eskakizunetara gehien egokitzen dena izango da. Zerbitzuan erabiliko den material guztia deskribatu beharko dute lizitatzaileek, horiek ahalik eta hobekien ezagutzeko xedearekin beharrezkotzat jotzen dituzten datu guztiak emanez.

Esleipendunak nahitaez bete beharko du zerbitzu horietara bideratutako material guztiaren mantentze prebentiboaren plana. Plan horretan adieraziko dira koipeztatze, azterketa, aldizkako eragiketa eta abarri buruzko jarduerak.

Erabilitako makina guztien erantzukizuna soil-soilik zerbitzuaren esleipenduna den enpresarena izango da, eta honek bere gain hartu beharko ditu bere makinetan zerbitzuan zehar beharrezkoak diren mantentze-lan, konponketa eta gerta daitezkeen matxura guztiak.

Zerbitzura atxikita dauden eta Industriako Lurralde Zuzendaritzaren aldizkako azterketa gainditu behar duten ibilgailu guztiek, arinek nahiz astunek, indarrean dagoen araudiak ezarritakoari jarraituz egingo dituzte azterketa horiek.

Eskumena duen agintaritzak salatutako gorabehera edo urraketa oro –trafiko, lan edo ingurumen alorrean– kontratistaren erantzukizuna izango da, GHKk kontratatutako jardueraren esparruan; hau da, GHK erantzukizun horretatik salbuetsita geratuko da.

6.- AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIO TEKNIKOA

6.1. ZARATA MAILA

Ibilgailuaren dokumentazio teknikoa erantsi behar da; eta horretan egiaztatuko da ibilgailuak betetzen duela indarrean dagoen Lan Arriskuen Prebentzioaren Legean zarata-emisioari buruz jasotako araudia. Hori aplikatuko zaio, halaber, proposatutako birrintze-makinari ere. Baldin eta diseinuagatik maila gainditzen bada, neurri zuzentzaileak jarriko dira, edo bestela, makina erabiltzen duten langileentzat nahiz zarataren eragina nozitu dezaketen pertsonentzat proposatutako Bakoitzaren Babes Ekipoak.

6.2. KARGAK ETA NEURRIAK

Errepide bidezko garraiorako trafikoak finkatutako 4 m-ko gehieneko altuera errespetatzen duten ekipoak aukeratu beharko dira. Esleipendunek zorrotz errespetatu beharko dituzte trafikoaren eta errepidezko garraioaren arloan indarrean dauden araudiak, nahitaezko dokumentazioak eta horien baldintzak, kargak behar bezala lotuta eramango dituzte eta deskargarako ateak finkatuta, karga askatzeagatik istripurik gerta ez dadin.
Ibilgailuek, baldintza agiri honetan adierazi bezala, behar adinako potentzia izango dute, gutxienez baldintza agiri honetan eskatzen dena errespetatuz.
Fabrikatzailearen markaren kontzesionario ofizialak egindako ziurtagiria aurkeztuko dute, proposatutako ibilgailu(ar)en ezaugarri teknikoak jasotzen dituena.

6.3. MOTORRA

Ibilgailuaren fitxa teknikoa, ibilgailuaren ezaugarri hauek ziurtatzen dituena:

- Diesela
- Atmosferara egiten diren emisioetarako EURO V araudia betetzea, gutxienez.

Fabrikatzailearen kontzesionarioak emandako ziurtagiria aurkeztuko da.

6.4. BALAZTA SISTEMA

Ibilgailuak ondokoak badituela ziurtatzen duen agiria:

- Retarder/intarder balazta
  edota
- ABS sistema

Fabrikatzailearen kontzesionarioak emandako ziurtagiria aurkeztuko da.

7.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Enpresa esleipendunak bete egin behar ditu Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean (1995eko azaroaren 10eko BOE, 269 zenbakia), Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan (1997ko urtarrilaren 31ko BOE, 27 zenbakia) eta laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako gainerako legeetan aurreikusitako betebehar guztiak.

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

54/2003 Legea, abenduaren 12koa, lan arriskuen prebentzioari buruzko arau esparrua eraberritzekoa.

39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzekoa.

Ondorioz, enpresa esleipendunaren betebeharrak izango dira:

- Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioa egitea, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuz.
- Lan arriskuak ebaluatzea.

- Prebenzio-ekintza planifikatzea arriskuen ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
- Lan-baliabideek langileen segurtasuna bermatzen dutela ziurtatzea.
- Langileei, egin behar duten lanera egokitutako babes pertsonalerako bitartekoak ematea, arriskuak ekidin edo behar adina mugatu ezin direnean.
- Langileei dauden arriskuei, aplikagarriak diren babes-neurri eta jarduerei, eta hartutako larrialdi-neurriei buruzko informazio egokia ematea.
- Langileei kontsulta egitea, eta laneko segurtasun eta osasunari eragiten dieten gai guztietan parte har dezaten ahalbidetzea.
- Langile bakoitzak prebentzioaren alorrean prestakuntza egokia jasotzen duela bermatzea.
- Langileak arrisku larri eta hurbil baten aurrean egon daitezkeenean, hori jakinaraztea eta neurriak hartzea.
- Langileen osasunaren aldizkako zaintza medikoa bermatzea.
- Langile bat edo gehiago izendatzea Arrisku Profesionalen Prebentzioaz ardura daitezen, prebentzio zerbitzu bat eratzea, edo zerbitzu hori entitate espezializatu batekin ituntzea.

GHKko prebentzio-zerbitzuei eman beharko diete, alor honi buruz, esleipendunaren betebeharren betetzeari buruzko jarraipen bat egiteko eskatzen zaien dokumentazio guztia.

8.- KONTROL SISTEMAK

GHKk zerbitzuaren ikuskaritza eta zaintza lanak egingo ditu, eta edozein une eta tokian egokitzat jotzen dituen berrikuspenak egin ahalko ditu.GHKk, egindako ikuskaritzaren arabera esleipendunak derrigorrez bete beharko dituen agindu eta jarraibide zehatzak eman ahalko ditu.

Lizitatzaileek GHKk errekeritutako datu guztiak garaiz emateko aukera ematen duten gailu arinak aurreikusi beharko dituzte, egindako lanen justifikazioari jarraiki, eta kontratatutako zerbitzuarekin lotuta egokitzat jotzen dituen kontrolak egiteko, proposatutako baliabideak esleituz eta eskainitako emaitzak lortuz.

Esleipendunak komunikazio sistema azkar eta eraginkor bat une oro bermatzeko beharrezko baliabideak ere izan beharko ditu (telefonoa, mugikorra, helbide elektronikoa, etab.).

Esleipendunak **Kudeaketa Sistema Integralari** (ISO 9001:2015 y ISO 14001:2015) lotuta GHKk eskatzen dion txosten oro egin beharko du.Eskatutako txostenak kilometroaren araberako gasoil

kontsumoari edo lan egindako ordu kopuruari buruzkoak izango dira, prebentzio mantentzeak eta jakinarazpenekoak edo zerbitzuarekin ados ez egotekoak, eta baita GHKk iritzitako ingurumen edota kalitateari buruzko indikadoreei buruzkoak ere.

Hilero, N hilabetearen lehenengo astean, esleipendunak N-1 hilabetean garatutako jardueraren hileroko txosten osoa aurkeztuko du, gutxienez honako puntu hauek izango dituena:

- Esleitutako jatorri puntu bakoitzetik ezarritako helmugaraino egindako txikitze eta garraio lanak:
    - Data
    - Garraio kopurua
    - Transferentzia estaziotik ateratzeko eta zabortegian deskargatzeko ordutegiak
    - Garraio bakoitzeko tonak
    - Gorabeherak
    - Oharrak, egindako lanen errealitatea hobeto islatzen duen beste edozein datu

- Hileko erregai kontsumoa
- Baliabide mugikorren eta makinen prebentzio mantentze prozedurak:
    - Mantentze lanak zein ibilgailuetan egin diren
    - Egindako lanak
    - IATen gaineko informazioa

- Matxuragatik egindako konponketak:
    - Matxuratutako ibilgailua eta matxura mota
    - Ibilgailua zerbitzuz kanpo egon den denbora eta ordezkatu duen ibilgailuaren matrikula eta datuak

Hileko txosten horrekin batera tratamendu plantetan egindako emate guztien pisu egiaztagiriak atxikiko dira, fakturak onartzeko ezinbesteko baldintzak izango direnak.

Edozelan ere, kontratistak GHKk zerbitzuaren gainean eskatzen duen informazio eta datu guztiak aurkeztuko ditu, GHKk ezartzen duen formatu eta maiztasunarekin.

Esleipendunak une oro GHKk eskatzen dizkion dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu, bereziki gizarte aseguruei, lan istripuei, aseguru polizei eta abarrei dagozkienak.